

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.
Bilera-mota: ohikoa.
Eguna: 2008/02/27
Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:15
Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.
Mikel Alzelai Zulaika, EAE talde politikoko zinegotzia.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, EAE talde politikoko zinegotzia.
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia
Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia.
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAKo zinegotzia.
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EAKo zinegotzia
Vicente Garmendia Martinez, EAKo zinegotzia.
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-BERDEAK taldeko zinegotzia.
Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia.
Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEeko zinegotzia
Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEeko zinegotzia.
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Aztergaiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2008/1/30eko eta 2008/2/15eko bilkurei dagozkien aktak onartzea.
GAZTERIA:
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuaren eta Legazpiko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Gazte-txokoko hezitzaileei zuzendutako aholkularitza programa martxan jartzeko dena.
HIRGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:
3. Tasatutako etxebizitzetarako buruzko udal ordenantza hasiera batean onartzea.
OGASUNA:
4. Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren 2008rako aurrekontu orokorrak onartzea.
ALKATETZA:
5. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
6. Eskariak eta galderak.

Organo o Comisión: Pleno.
Tipo de Convocatoria: ordinaria.
Día: 27/02/2008
Hora: Comienzo: 19:30 y final: 20:15
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, alcalde.
Mikel Alzelai Zulaika, concejal del Grupo Político ANV
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, concejal del Grupo Político ANV
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV
Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV
Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-BERDEAK
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita
Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE
Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

Orden del Día:

1. Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones del 30/01/2008 y 15/02/2008.
JUVENTUD:
2. Convenio de colaboración entre el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Legazpi para la puesta en marcha de un programa de asesoramiento a las educadoras y educadores del Gazte-txoko.
URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:
3. Aprobación inicial de la Ordenanza municipal reguladora de viviendas tasadas.
HACIENDA:
4. Aprobación, si procede de los presupuestos generales para el Ayuntamiento del año 2008.
ALCALDIA:
5. Dar cuenta de los decretos dictados.
6. Ruegos y preguntas.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2008/1/30eko eta 2008/2/15eko bilkurei dagozkion aktak onartzea.

Berlaratuko en aho batez onartu da 2008ko urtarrilaren 30eko akta eta 2008ko otsailaren 15eko akta, aldez, aldeko 11 botorekin eta PSE-EE taldeko zinegotzien bi abstentziorekin onartu da.

GAZTERIA:

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuaren eta Legazpiko udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Gazte-txokoko hezitzaileei zuzendutako aholkularitza programa martxan jartzeko dena.

Mikel Alzelai zinegotziak hartu du hitza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Legazpiko Udaleko Gazteria sailari proposamen bat luzatu diola jakinarazi du, Gazte-txokoko hezitzaile taldeari aholkularitza programa bat eskainiz.

Programa horren arabera, hiru helburu hauetan egingo da indarra: gazteen parte hartzea eta integrazioa, euskararen sustapena eta generoaren tratamendu hezitzailea lantzea. Ez du aparteko gastorik Udalarentzat.

Horren gainean, Gazteria batzordeak honako irizpen hau onartu zuen:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta Legazpiko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, Gazte-txokoko hezitzaileei zuzendutako aholkularitza programa martxan jartzeko dena.

Jose Morcillo zinegotziak aldeko botoa emango duela esan du.

Juan Ramón Larrañaga zinegotziak erakundearen arteko lankidetzaz goraipatu du.

Berlaratutako guztien aho batez onartu dute Gazteria batzordeak igorritako irizpena.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones del 30/01/2008 y 15/02/2008

Por unanimidad de los presentes se aprueba el acta de 31-01-2008 y respecto al acta fechada el 15-02-2008, se aprueba la misma con 11 votos a favor con las dos abstenciones de los corporativos del PSE-EE.

JUVENTUD:

2. Convenio de colaboración entre el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Legazpi para la puesta en marcha de un programa de asesoramiento a las educadoras y educadores del Gazte-txoko.

Toma la palabra Mikel Alzelai. Explica que el Departamento de Política Social de la diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado una propuesta al Departamento de Juventud del Ayuntamiento de Legazpi ofreciendo un programa de asesoría al equipo de educadoras y educadores del Gazte-txoko.

Se incidirá en tres objetivos: Participación e integración de las y los jóvenes, fomento del euskera y trabajar el tratamiento educativo de género. No supone un gasto extraordinario para el Ayuntamiento.

La Comisión de Juventud elabora el siguiente dictamen:

Aprobar el convenio de colaboración entre el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Legazpi para la puesta en marcha de un programa de asesoramiento a las educadoras y educadores del gazte Txoko.

Toma la palabra José Morcillo para anunciar que votará a favor.

Juan Ramón Larrañaga quiere subrayar la importancia de la colaboración interinstitucional.

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el dictamen emitido por la Comisión de Juventud.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

HIRGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

3. Tasatutako etxebizitzetarako udal ordenantza hasiera batean onartzea.

Alkateak hartu du hitza. Ordenantzaren helburu nagusia Legazpiko tasatutako etxebizitzak babesteko dituen erregimena arautuko duten baldintzak zehaztea da, herrian etxebizitza egokia izateko beharrei erantzunez eta bidezko salneurriak ezarriz.

Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza eta batzordean esan zuenaren arabera, hasierako onarpenari baiezkoa esango diola adierazi du; hala ere, horrek ez du esan nahi jendaurrean agerian egoteko epean alegaziorik aurkeztuko ez dituenik.

Segidan Jose Morcillo zinegotziak hartu du hitza. Memoriaren edukia (1. atala) eta ordenantza bera (2. atala) aztertu ondoren, oro har, dagokion legerian ezarritako printzipioekin bat egiten dutela esan du. Hala ere, gure ustez ordenantzaren helburuak ahultzen dituzten "salbuespenezko" atalak sartu dira. Adibidez, 7. orrialdeko "tasatutako etxebizitzak esleitzeko baldintzak" 7. puntuaren 3. paragrafoan honela irakur daiteke:

"Bigarren salbuespena Brinkola eta Telleriarte auzoetan aurreikusitako eta/edo izango diren tasatutako etxebizitzak dira.

Eremu horietako ezaugarriak eta bereizitasun soziologikoak, ... gordetzeak justifikatu egin dezake bertako etxebizitzak bertako bizilagunei esleitzeko irizpideak zehaztea."

Hori bera jasotzen da ordenantzaren 16. orrialdean, esleitzeko prozedura izeneko atalean D letran, a) puntuaren. Honela dio:

a) "Brinkola eta Telleriarte auzoguneetan aurreikusitako tasatutako etxebizitzak bertako eta/edo bertan bizi diren auzolagunei lehentasunez esleitzeko irizpide bereziak. Horretarako, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute interesatuek eta baldintza

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

3. Aprobación inicial de la Ordenanza municipal reguladora de viviendas tasadas.

El objetivo básico de la ordenanza es el de determinar las condiciones reguladoras del régimen de protección de la vivienda tasada de Legazpi, con el fin de dar respuesta a las necesidades de vivienda adecuada y a precios asequibles de la población.

Toma la palabra Iñaki Sánchez. Tal y como dijo en la Comisión, dará el voto afirmativo a esta aprobación inicial, pero ello no quiere decir que en el periodo de exposición pública no presenten alguna alegación.

Toma la palabra José Morcillo. Estudiado el contenido de la memoria (1ª parte), como de la Ordenanza (2ª parte), hemos de reconocer que están conformes, en general, a los principios establecidos en la legislación correspondiente. Sin embargo se han incluido unas cláusulas "excepcionales" que en nuestra opinión desvirtúan los objetivos de la ordenanza. Se refiere al párrafo del punto 7, pag. 7, "condiciones de adjudicación de las viviendas tasadas", párrafo 3, cita textualmente:

"La segunda incide en las viviendas tasadas previstas y/o resultantes en Brinkola y Telleriarte.

La preservación de las características y particularidades sociológicas, etc. de esos núcleos justifica y/o puede justificar la determinación de criterios de adjudicación preferente de dichas viviendas a los vecinos de los mismos."

Esto mismo aparece en la ordenanza propiamente dicha en la pg.: 16, procedimiento de adjudicación, letra D, a) Cito textualmente:

a) "Criterios particulares para la adjudicación preferente de viviendas tasadas municipales previstas en los núcleos de Brinkola y Telleriarte entre los vecinos y/o residentes en los mismos, sin perjuicio de la debida acreditación del cumplimiento de dicha condición, y del

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

betetzen duten guztien artean egingo da zozketa.”

Udalerrria “per se” unitate administratiboa denez, talde sozialistak ez du ontzat hartzen horrelako salbuespenak ezartzea. Horren arabera, edozein auzok alega dezake ezaugarri bereziak izatea eta antzeko salbuespenak aintzat hartzea eska dezake; praktikan, horrelako jokabideek hainbat pertsona-taldeekiko edo auzoan ongi etorriak ez diren pertsonetikiko diskriminazio ez-bidezkoa, antidemokratikoa eta ez-legala babesten dute.

Baldintzak betetzen dituen Legazpiko edozein bizilagunek izan behar du udalerrriaren edozein eremu administratiboan esleipenduna izateko eskubidea.

Beraz, puntu horretan abstenitu egingo gara, gure ustez “publizitatea eta gardentasuna, lehia librea eta diskriminazio eza” printzipioak hautsiko dituzten erabakien aurka joateko eskumena izateko.

Ondoren, Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza. Hasierako onarpenaren alde egingo dutela esan du baina testua hobetzeko aukera izango dela dio.

Hirigitzako batzordeak honako irizpen hau eman zuen:

1.- Legazpiko tasatuko udal etxebizitzak arautzeko ordenantza hasiera batean onar dadila.

2.- Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, hartutako erabakia eta horren gainean bideratuko den espedientea, jendaurrean agerian jarriko dira iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztzen ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo

11tik 4

correspondiente sorteo entre las personas que las cumplan.”

Habida cuenta que el municipio, “per se”, es una unidad administrativa, no es asumible por el grupo socialista una excepcionalidad semejante. Ello conllevaría que cualquier otro barrio, argumentando características especiales, exigiese cláusulas similares, encubriendo, en la práctica una injusta, antidemocrática e ilegal discriminación hacia colectivos de personas, vistas por algunos, como “non gratas”, en su entorno vecinal.

Todo vecino de Legazpi que cumpla los requisitos tendrá el mismo derecho a ser adjudicatario en cualquier rincón administrativo del municipio.

Por tanto nos abstendremos en este punto para tener la capacidad de recurrir posibles acuerdos que en nuestra opinión vulneren los principios de “publicidad y transparencia, libre concurrencia y no discriminación.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. Ellos votarán a favor de la aprobación inicial, pero piensa que habrá oportunidad de mejorar el texto.

La Comisión de Urbanismo emitió el siguiente dictamen:

1. La aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas municipales de Legazpi

2. En cumplimiento de lo dispuesto en el art.49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

ondoren, aldeko 11 botorekin eta PSE-EE taldearen bi abstentziorekin onartu egin da.

OGASUNA:

4. Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren 2008rako aurrekontu orokorrak onartzea.

Iñaki Sánchez zinegotziak hartu du hitza. Azken bi hilabetetan bilera asko egin ditu Ogasun batzordeak eta, azkenik, otsailaren 19an egindako Ogasun Batzordean oniritzia jaso zuen legealdi honetako lehen aurrekontuak. Prozeduraren aldetik ez dut uste kezarik egongo direnik, talde politikoei emendakinak sartzeko aukera desberdinak eman baitzaizkie.

Hainbat emendakin aurkeztu ziren eta guztiak aho batez onartu ziren. Ondoren, emendaki horiek aurrekontuan integratu dira eta onartu egin zen Jose Morcillo zinegotziaren abstentzioarekin.

Udalaren aurrekontu orokorra honela dago osatuta: udaletxearen aurrekontuak eta bere bi erakunde autonomoen aurrekontuak sartzen dira, hau da, kiroletako udal patronatoarenak eta udal euskaltegiarenak, eta Herrigintza SA sozietate publikoarenak.

Guztira, Legazpiko sektore publikoaren aurrekontu bateratuaren kopurua 10.511.608,38 eurora iristen da.

Udalaren aurrekontuari dagokionez, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena 9.160.043,01 eurora iristen da.

Segidan, gastuen atalerako aurreikusitakoa azaldu du. Inbertsioen atalean 2.035.196,52 euro aurreikusi dira: 200.000 euro eskola-azpiegitararako eta ikastetxeetarako; 181.520 euro lurzoruaren udal ondarrerako; 664.000 euro azpiegitararako eta hirigintzarako,...

Ondoren, aurrekontuei buruzko bestelako eztabaidetarako esan du gure presio fiskala 310 eurokoa dela, Gipuzkoakoaren batz bestekoa 2006. urtean 504 euroko izan den bitartean. Zorpetzearen indizea 5,54koa da.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba el dictamen presentado con 11 votos a favor y las dos abstenciones de del PSE-EE.

HACIENDA:

4. Aprobación, si procede de los presupuestos generales para el Ayuntamiento del año 2008.

Toma la palabra Iñaki Sánchez. En estos dos últimos meses, tras muchas reuniones, en la Comisión de Hacienda celebrada el 19 de febrero de 2008 se dio el visto bueno al primer presupuesto de este mandato. Desde el punto de vista procedimental opina que no puede haber queja alguna, ya que se ha posibilitado la presentación de enmiendas.

Se presentaron varias enmiendas que fueron aprobadas por unanimidad. Una vez integradas dichas enmiendas en el presupuesto, dicho documento fue aprobado con la abstención de José Morcillo.

El presupuesto general del Ayuntamiento estaría conformado por el Ayuntamiento en sí y sus dos organismos autónomos, el Patronato Municipal de Deportes y el Euskaltegi Municipal, y de la sociedad pública Herrigintza, S.A.

La cuantía total del presupuesto consolidado del sector público de Legazpi ascendería a 10.511.608,38 euros.

Respecto al presupuesto del Ayuntamiento la previsión de ingresos y gastos asciende a 9.160.043,01 euros.

Se detiene en la previsión del apartado de los gastos. Hace hincapié en el apartado de inversiones, cuya cantidad asciende a 2.035.196,52 euros: 200.000 euros infraestructura escolar y edificios escolares, 181.520 euros patrimonio municipal del suelo, 664.000 euros infraestructura y urbanización,...

Sin más deja para próximos debates presupuestarios que tenemos un índice de presión fiscal de 310 euros siendo la media de Gipuzkoa de 504 en el año 2006 y el índice de

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

Jose Morcillo jaunak hartu du hitza. Aurrekontuaren proiektua aztertu ondoren, udalerrriak ekitaldi honetarako dituen beharretara nahikoa ondo egokitutako aurrekontua dela onartu behar dutela esan du; bestetik, adostasun maila onarekin erabaki da eta toki-entitateen aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 12ko 21/2003 Foru-Araua dioena bete da. Hala ere, kontuan hartu behar dira hainbat gauza: batetik, beraiek oposizioan daudela; bestetik, ez dutela aurrekontua egiten parte hartu eta, gainera, ez dutela aurrekontua beraiek kudeatuko. Horrezaz gain, hainbat gai zehatz daude, hala nola, "familiei diru-laguntzak" partidarena: ordenantza bat dago laguntza horiek arautzeko baina laguntza horiek presoentzako diru-laguntzak emateko dira eta horrekin ez datoz bat. Beraz, abstenitu egingo dira.

Segidan, Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza. Aurreko urteetako parte-hartze dinamika puskatu egin dela esan du eta aurrekontua ez da batzorde desberdinetan aztertu. Aurrekontua aurkeztutako emendakinekin osatu da eta beraz, oposizioak ere parte hartu du. Interesgarria dela uste du Legazpi Bai onartzea eta partida bat eskaintzea. Egokia da, halaber, ez zorpotearen aldeko politika egitea eta Eudelen irizpideak onartzea. Bukatzeko, emendakinekin 2007ko aurrekontuan zeuden eta burutu gabeko partidak ez direla gauzatu onartu da.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza. Aurrekontua, urtero, udal kudeaketa oinarritzen den ezinbesteko zutabea dela adierazi du: bertan zenbatuta edo kuantifikatuta agertzen diren egitasmoak daukate gauzatzeko aukerak eta beraz, gobernu taldearen asmoen erretratuan bilakatzen da.

Gu, oposizioan gaude. Baina behin eta berriz, udal hau eratu zenetik nekerik gabe errepikatzen dugun bezala, gure oposizioa konstruktiboa da, horrela ikusi nahi duenarentzat. Garen tokian garela eta dugun indarra dugula, gure herria etorkizunerantz bultzatu nahian egiten dugu lan eta, hori da hain zuzen ere gure helburua, hau da, adostasunak bilatzea, aurrekontuekin egin dugun bezala.

endeudamiento es del 5,54.

Toma la palabra José Morcillo. Analizado el proyecto de presupuesto hemos de reconocer que es un presupuesto bastante ajustado a las necesidades del municipio para este ejercicio, resuelto con un alto grado de consenso, que cumple las exigencias de la Norma Foral 21/2003 de 19/12, presupuestaria de las entidades locales, sin embargo habida cuenta las circunstancias concurrentes, como que estamos en la oposición, que no hemos participado en la elaboración del mismo y, sobre todo que no seremos los ejecutores del presupuesto, mas algún contenido puntual como es el caso de la partida denominada de "ayudas a familias", que tiene una ordenanza que la regula y que en la práctica es para subvencionar a familias de presos, por todo ello se abstienen.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga, votarán a favor. Menciona que se ha roto la dinámica de participación de los años anteriores, ya que el presupuesto no ha sido analizado por las distintas comisiones. El presupuesto se ha completado por las enmiendas presentadas y así se demuestra que desde la oposición se hace Ayuntamiento. Ve interesante que se reconozca a Legazpi Bai dotándole de una partida, que se mantenga una política de no endeudamiento y que se reconozcan los criterios de Eudel. Para acabar con las enmiendas se reconoce la no ejecución de las partidas que estaban presupuestadas en el 2007 y no se han ejecutado.

Toma la palabra Ane Urkiola. El presupuesto es el pilar fundamental sobre el que se fundamenta la gestión anual de un ayuntamiento; es la dotación económica efectiva lo que, a fin de cuentas, hace que un proyecto o una idea pueda materializarse y la que retrata la verdadera intencionalidad del equipo de gobierno.

Nosotros estamos en la oposición. Pero como ya lo venimos manifestando desde la constitución de este ayuntamiento y no nos cansamos de repetir, nuestra oposición es constructiva, para el que lo quiera ver. Desde nuestra posición y con nuestras fuerzas trabajamos por impulsar Legazpi hacia el futuro en todos los ámbitos y es este objetivo, el interés general de nuestro pueblo, el que nos mueve a

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

Guretzako konstruktiboak garea esatearekin ez da nahikoa, ez da ezer egiten adostasunak bilatzen saiatzen ez bagara; nahi izanez gero eta posible direnean, noski.

Nahiz eta egitasmoaren lehen urratsak, formalak eta gogokoak ez izan, gobernu-taldea irekia eta harkorra agertu da gure iradokizunen aurrean, bai lehenengo aitzaki formal horien aurrean, bai ondoren, ia eduki ekonomikoko iradokizun eta emendakinen aurrean.

Kirol ekitaldien eta azpiegituren finantzaketa egiaztatu dugu, bai eta gizarte eta kultur arloko diru-laguntzak, udal zerbitzuen eta azpiegituren gauzatzeari, etorkizunerako ikerketak eta egitasmoak...e.a.

Bi izan dira prozesu honetan gidatu gaituzten irizpideak:

a) Erantzukizuna, etorkizunean eta hauteskunde giro batean errentagarriak gerta zitezkeen jarrerak alde batera utziz.

b) Eta udal zorraz ez baliatzea, aurreko legealdietan hasitakoa gutxitzeko bidean jarraituz, 'zorra zero' azken helburuarekin.

Eusko Alkartasuna taldearekin batera, Ogasun Batzordean adostuak eta onartuak izan diren gure emendakinak, honako hauek izan dira:

1.- Udal talde eta ordezkarien ordainsariei buruz EUDELek emandako kontzeptuak aplikatzea.

Kontzeptu horien aplikatzearekin batera, denon artean adostutako ordainsarien gehikuntza proposatu dugu, udaletxean egiten dugun lana, gu guztion lana, konplexurik gabe duintzeko asmoz.

2.- Legazpi Bai egitasmoaren aldeko diru-jartze izenduna. Garaia da gure ustetan pasa den legealdian martxan jarritako egitasmo horren aldeko apustu tinkoa egiteko. Gure herrirako etorkizun berritzailea bilatzen duen egitasmoa da eta herri askok nahiko lukete horrelako egitasmo

buscar consensos como el presupuestario.

De nada sirve calificar reiteradamente nuestra oposición como constructiva si esto, no se materializa en la búsqueda de consensos, allí donde se pueda y se quiera.

Aunque hemos manifestado nuestra disconformidad con la forma de elaboración inicial del proyecto presupuestario el equipo de gobierno se ha mostrado receptivo a nuestras sugerencias, tanto en lo que respecta a esos primeros reparos formales como a los contenidos, ya de carácter económico, de las sugerencias y enmiendas posteriores.

Nos hemos asegurado de la financiación de eventos e infraestructuras deportivas, ayudas en el ámbito social y cultural, de servicios e infraestructuras urbanas, de estudios y proyectos de futuro... etc.

Dos han sido los criterios fundamentales que han guiado nuestra actuación en el proceso:

a) La responsabilidad, dejando de lado actitudes que pudieran resultar a futuro electoralmente rentistas.

b) El no recurrir al incremento del déficit público, sino continuar en el proceso iniciado en legislaturas anteriores de reducción del mismo, con el objetivo final de déficit cero.

Nuestras enmiendas, de la mano con Eusko Alkartasuna, consensuadas en Comisión, se han referido a:

1. Aplicación de los conceptos acordados por EUDEL en materia de indemnizaciones a Grupos y representantes municipales.

Junto con la aplicación de dichos conceptos, hemos propuesto el incremento consensuado de dichas percepciones al objeto de dignificar, sin complejos, nuestra labor en este Consistorio. El de todos nosotros.

2. Dotación presupuestaria, con carácter nominativo, a favor del Proyecto Legazpi Bai. Consideramos que ya es hora de apostar con firmeza y de manera indubitada por la puesta en valor de este Proyecto puesto en marcha en la legislatura anterior; un Proyecto que busca un

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

bat beren esku izatea.

Berrikuntzaren bidean, udalek ere parte hartu behar dute nahitaez, etorkizunean lehiatu nahi badute, eta Legazpi lehengotako postuetan korri egin behar du; ezin ditu etorkizuneko aukerak galdu eta, jadanik, herri guztiak daude edo izango dira, etorkizuneko aukera horien alde borrokan.

3.- Beti ere Mugikortasun Planak esaten duena kontuan izanik, Legazpiko merkataritza-guneen oinezkotasunaren Proiektua gauzatzeko diru zehatza eskatu dugu aurrekontuetan, Kale Nagusiarekin hasita, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismoko Sailak aurten dei egingo duen laguntzetara iristeko asmoz.

Argitu, egitasmo horiek, era berean, area guzti horien egokitasun osoa aurreikusiko dutela, sarbideak, argiak, ... eta abar.

4.- Obrei dagozkien diru-kopuruak direla-eta, hilerriarentzako aurreikusitako diru kopurua gehitu nahi izan dugu, bere egoera eutsi ezinezkoa deritzogu eta.

5.- Eta gobernu taldearekin honako hau adostu dugu, aurrekontutik kanpoko Akordio batean: 2007ko aurrekontuetan aurreikusita baina gauzatu ez diren inbertsioak lehenetsuna izango dutela 2008ko aurrekontuetan: Patrizio Etxeberria kalea, Santikutz kalea, Itxaropen auzorako sarbidea.... beti ere, Mugikortasunaren Planak dioena eta udalez gaidiko laguntza Programetan izan litezken finantziario irizpideak kontuan izanda.

Ziur nago hemen gauden udal talde bakoitzak, aurrekontu-egitasmo desberdina aurkeztuko genukeela, baina gaurko hau, gure herriko mugapen politiko eta finantzarioen ondorioa da eta horregatik, arduratsuak izanik, gure herriaren onuran adostasuna bilatzera derrigortu gaitu. Bukatzeko, eta esandako guztia aintzat hartuz, gaurko Osoko Bilkuran onartzeko aurkeztu den aurrekontuaren aldeko botoa

futuro innovador para nuestro pueblo y por el que muchos municipios se darían con un canto en los dientes.

En la carrera por la innovación, al que también los municipios se deben y se están incorporando, Legazpi debe correr en los primeros puestos; no se puede permitir perder oportunidades de futuro, oportunidades por las que todos los municipios, si no pugnan ya, pugarán.

3. Condicionado a lo que se pudiera derivar del Plan de Movilidad, hemos pretendido la consignación expresa de dotación presupuestaria para la elaboración del Proyecto de peatonalización de las áreas comerciales, empezando por la calle Nagusia, para poder optar a las ayudas que a tal efecto prevé convocar este año el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

Indicar que dichos proyectos implican, a su vez, el acondicionamiento total de dichas áreas desde el punto de vista de accesos, iluminación...etc.

4. En materia de Obras, hemos propuesto la ampliación del crédito inicialmente propuesto para el acondicionamiento del Cementerio, cuyo estado consideramos deplorable y tercermundista.

5. Y hemos acordado con el equipo de gobierno, con carácter de acuerdo extrapresupuestario, el compromiso de priorizar las inversiones presupuestadas ya en el pasado ejercicio pero que no han sido ejecutadas hasta la fecha, tales como las aceras de la calle Patrizio Etxeberria y parte alta de la calle Santa Cruz, acceso a Itxaropen ... en el marco de las orientaciones que se deriven del Plan de Movilidad y de los criterios de financiación que pudieran darse en Programas de Ayudas de ámbito supramunicipal

Seguro que cada uno de los Grupos que estamos aquí presentaríamos un proyecto de presupuesto diferente al actual, pero éste, es el fruto de las limitaciones políticas y financieras que concurren en nuestro municipio y que nos han exigido un esfuerzo de responsabilidad en aras del bien de nuestro pueblo. Todo lo expuesto motiva nuestro voto favorable al

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

emango dugu.

Segidan, Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza. Berak aldeko botoa emango duela esan du baina hainbat partidekin ez datorrela bat adierazi behar du, hala nola, familiei eskaintzen zaizkien diru-laguntzekin eta ordenantza hori ez-morala dela eta indargabetzeko aukerarik dagoen aztertu behar dela dio.

Une honetan, Juan Miguel Urrutia zinegotziak hartu du hitza. Aipatu ordenantza ez-morala dela esan da eta bera horren aurka dagoela adierazi behar du. Ordenantza hori orain dela zortzi urte onartu zen, bera zinegotzia zela; orduan gobernu-taldea osatzen zuen eta zinegotzi guztiek, PP taldekoek izan ezik, onartu zuten ordenantza. Testuinguru zehatz batean geuden, ETAk su-etena aldarrikatuta, eta urratsak ematen ari ziren gatazkari irtenbide bat emateko, hau da, Gobernua presoak hurbiltzeko saiakera egin zuen, presoak laguntzeko araudiak sortu ziren,... Jakina da, bere taldea presoan dispersioaren aurka dagoela eta egoera hori presoan senitartekoei ezarritako zigorra dela uste dute. Beraiek biktimen alde daudela azaldu du baina gatazkaren bi aldetako biktimen alde; horrela, Eusko Legegiltzarrak gai horren gainean eta udal-eremurako erabakiko duenarekin bat egingo dutela esan du. Azkenik, ezin duela ez-moralaren kalifikazioa onartu esan du.

Ana Salinero zinegotziak une honetan ez dagoela su-etenen eta orain ez-morala dela dio, ez 2000. urtean.

Alkate jaunak lortu den adostasuna oso garrantzitsua dela esan du. Elkar ulertzea lortu dela dio.

Aurrekontuak erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 11 botorekin eta PSE-EE taldearen bi abstentziorekin onartu dira.

ALKATETZA:

5. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Dekretuak banatu dira.

6. Eskariak eta galderak.

Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza eta udal aldizkariari buruz bi xehetasun egin nahi

proyecto presentado.

Toma la palabra Ana Salinero, su voto es favorable, pero respecto a algunas partidas, concretamente, la ordenanza de ayudas a familias es inmoral totalmente, habría que mirar si se puede derogar la ordenanza.

En este punto toma la palabra el concejal Juan Migue Urrutia. Se tiene que poner en contra de la afirmación de que la ordenanza citada es inmoral. Se aprobó cuando él era concejal del área hace unos ocho años, tomada por el equipo de gobierno de entonces, votado por todos los concejales a favor excepto la de PP. Se tomó esa decisión en un contexto determinado, existía una tregua de ETA, se estaban dando pasos bilaterales para acabar con el conflicto, es decir, el Gobierno estaba acercando presos, se empezaron a producir normativas de ayuda a los presos,...Es conocido que su grupo está en contra de la dispersión de presos por considerar que es una pena añadida impuesta a los familiares de presos. Ellos están a favor de las víctimas, de todas las víctimas de las dos partes del conflicto, a ese respecto estarán a favor de lo que pronto determine el Parlamento Vasco en el ámbito municipal. Finalmente no puede aceptar la calificación de inmoral.

Replica Ana Salinero que lo califica de inmoral en estos momentos que no hay tregua, no en el 2000.

El Alcalde manifiesta que es muy importante el consenso que se ha logrado. Ha habido un entendimiento.

Se aprueban los presupuestos con 11 votos a favor y las dos abstenciones del PSE-EE.

ALCALDIA:

5. Dar cuenta de los decretos dictados.

Ya se han repartido los decretos

6. Ruegos y preguntas.

Toma la palabra Ana Salinero. Sobre el boletín municipal dos puntualizaciones. Respecto

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

dituela esan du. Batetik, Legazpiko Ezker Abertzaleak Hiri-antolamendurako Plan Orokorra aipatzen den puntuan bere izena ageri da: bere izena erabiltzea legez kontrakoa da. Bestetik, eskerrak ematen dizkio Alkateari deitu diolako eta zuzendu egin duelako.

Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziari aldizkarian esaten duena zuzen dezala eskatzen dio. EB-Berdeak ez zen udal-hauteskundeetan bakarrik aurkeztu, Aralar taldearekin baizik. Inork ez ditu botoak lapurtu eta EB-Berdeak taldeak Aralar taldearen botoak eurenak direla adierazten du.

Ez du kargua utziko, herriaren alde egiten duen lana ona dela uste duelako; oraindik ez du kezarik jaso, alderantziz, herritar askoren laguntza jaso du eta eskerrak eman nahi dizkie hemendik. Legazpiren alde lan egiten jarraituko duela adierazi du.

Iñaki Sanchez zinegotziak kargua uzteko edo ez uzteko askatasuna duela erantzun du. EB-Aralar koalizioan EB-Berdeak taldeko afiliatu gisa aurkeztu zen, bera zen afiliatuta zegoena. Orain Aralar taldearekin negoziatzen baldin badago, bere gauza da eta errespetatuko duen erabakia da. Bukatzeko, aurreko Osoko Bilkuran mozio bat onartu zuela ekarri nahi dio gogora eta bertan honakoa jaso zen: *Talde politiko bakoitzak azkeneko udal hauteskundeetan jaso duen ordezkartzari zor zaion errespetu demokratikotik egingo zuela lan.* Ezker Batua talde politikoak bi zinegotzi zituen eta orain bakarra du. Kontsekuente izan behar da.

Juan Ramon Larrañaga jaunak, udal aldizkariari dagokionez, azarotik hona zain dagoela dio zein kostu izan duen, zein prozedura erabili den eta zein irizpideren arabera egin den jakiteko. Bukatzeko, joan den otsailaren 15eko Osoko Bilkuran Alkate jaunarengan beste jokabide bat espero zuela esan du; mahai honetako hainbat zinegotziri hiltzaile deitu zieten eta alkateak defendatzea espero zuen, hori onartezina baita.

Alkate jaunak ez zuela horrelakorik entzun eta batzar aretoa normal zegoela erantzun du.

a Legazpiko Ezker Abertzalea, en el punto del PGOU, se menciona expresamente su nombre, el uso de su nombre es ilegal. También quiere dar las gracias al Alcalde por llamarle y rectificar.

A Ezker Batua-Berdeak decirle que solicita que el concejal de EB-BERDEAK se retracte de lo escrito en la revista ya que EB-BERDEAK no iba solo a las elecciones municipales, que no se olvide que EB-BERDEAK acudía en coalición con Aralar, que no tachen a nadie de ladrones de votos, cuando EB-BERDEAK da a entender que los votos de Aralar son de ellos.

Decir que no renunciará, ya que creo buena la labor que estoy realizando por el pueblo, y todavía no he recibido ninguna queja de ningún votante, todo lo contrario, ha sentido el apoyo de muchos electores y les doy las gracias desde aquí. Seguirá trabajando por el pueblo de Legazpi.

Replica Iñaki Sánchez, señala que ella está en su derecho de renunciar o no y que iba en la Coalición EB-ARALAR como representante de EB-BERDEAK como afiliada a ese partido, la afiliada era ella, no él. Si ahora está en negociaciones con Aralar es cosa suya y lo respeta profundamente. Para acabar le contesta que el Pleno pasado ella aprobó una moción en la que se decía que *iba a trabajar desde el respeto democrático a la representatividad que las últimas elecciones municipales han otorgado a cada Grupo Político.* El Grupo Político Ezker Batua tenía dos concejales, ahora tiene uno. Hay que ser consecuente.

Juan Ramón Larrañaga manifiesta, con relación al boletín, desde noviembre se está a la espera de saber que coste ha tenido, que procedimiento se ha utilizado y los criterios utilizados. Para acabar, respecto al pleno del quince de febrero, echó de menos en el Alcalde una actitud más de defensa hacia algún grupo ante los insultos y ataques, se llamó asesinos a algunos concejales de esta mesa y eso no se puede consentir.

El Alcalde contesta que no escuchó eso y que la sala de plenos estaba muy normal.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/02/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/02/2008

Alkateak, arratsaldeko 20:15 direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El Sr. alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 15 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p style="text-align: center;">UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA</p> <p style="text-align: center;">2008/02/27</p>	<p style="text-align: center;"> LEGAZPIKO UDALA</p>	<p style="text-align: center;">ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL</p> <p style="text-align: center;">27/02/2008</p>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

<p>Akta hau 2008/03/26(e)an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 26/03/2008:</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p style="text-align: center;">Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p style="text-align: center;">Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>